

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza ^{info}

Asteazkena, 2012ko maiatzaren 23a. IX. urtea. 2.353. zenbakia. tolosaldea.hitza.info



Hernaldeko Saraon baserriko Manoli Urdangarin eta Xanti Sorron dira Saskikako ekoizleetako batzuk. HITZA

Lask abesbatza eta Udaberri dantza taldea, bat eginik

‘Alami, hosto baten hegaldia’ ipuin musikatua prestatu dute eta Tolosako Leidor aretoan eskainiko dute igandean, 12:00etan **03**

Santiago Jimenez

Villaverde del Rioko alkatea

«Gure eguneroko lan egiteko moduak oso gertukoak dira»

Politika marxista darabilte udalean eta horren inguruan hitz egingo du gaur, Tolosan **02**

Saskiak internet bidez

‘www.saskika.com’ webgunean garaian garaiko produktuak eskatu daitezke; Tolosako Bistrot dendan saskia jasotzeko aukera dago **06**

Leitzaldean bat egin dute hezkuntzako murrizketen kontrako lanuztearekin

Leitzaldeko ikastetxe guztietan egin zuten protesta, atzo, Nafarroako Gobernuak aurreikusitako neurrien aurka egiteko **07**



60 bat pertsona bildu ziren atzo, eta bihar ere egingo dute bilkura. HITZA

Zeberio eta Mañukorta bertsolariak biharko Harri Jaia ospatzeko

Bedaiotarrek festa egunak izango dituzte aste honetan; Harri Jaia eta gero, larunbatean eta igandean, jokoak, musika eta abar izango dituzte **05**



TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO hitza ^{info}

XIV Orduak
probarekin!

tolosaldea.hitza.info webgunean, XIV Orduak probaren atalean, ibilbidearekin zerikusia duten albisteak dituzu eskuragarri: elkarrizketak, probaren xehetasunak, aholkuak...

- **Maiatzaren 27an**, XIV orduen egunean, **HITZAK presentzia berezia izango du**; ... egunean zehar webgunean eta sare sozialetan ibilbidearen berri emango du momentuoro. ... San Migelen bertan presentzia izango du. ... gauean, proban parte hartu duten guztien argazkiak zintzilikatuko ditu webgunean, nahi duenak eskuratu ditzan.

- **Maiatzaren 28an**, astelehenean, bezperako probaren inguruko **ale berezia** argitaratu eta banatuko du HITZAK eskualde guztian.



SALESIANOS urrieta
SALESIARRAK

LANBIDE HEZIKETA FORMACIÓN PROFESIONAL

Ofertan grafikoa, Inprimakeria, Sargaria, Mekanika, Elektroteknika, Elektromekanika, Elektrikoa, Informatika, Sargaria, Herriak, Elektroteknika, Elektromekanika

**MATRIKULAZIOA
MATRIKULACION**

zatoz ven

Maiatzaren 28tik ekainaren 8ra,
Del 28 de Mayo al 8 de Junio.

www.salesianosurrieta.com

Hasi dira Larramendi auzoan bilera eta bisita gidatuak

Tolosako Arkaute etxean bilerak egin eta gero errepidean marraztutakoa azaldu dituzte teknikariek

Imanol Garcia Landa

Tolosako Larramendi auzoko parte hartze prozesuaren lehen bilera eta bisita gidatuak hasi dira. Parte hartzearen aholkulariez gain, udal arkitektoa eta teknikariak ere izan dira bertan, eta beste bileretan ere parte hartuko dute, bertara joaten diren auzotarreri azalpenak emateko.

Arkaute etxean egin dute lehen bilera, eta lehenbizi bertan izan diren iritziak jaso dituzte, bi galderei erantzunez; alde batetik, parte hartze prozesutik zer espero duten, eta, bestetik, auzotik zer atsegin duten gehien. Galdera horiek izan dituzte hizpide, lehen iritzi eta kezak azaltzeko. Besteak beste, herritarrek eta teknikariek, parte hartze prozesuak auzotarrak informazio gehiago jasotzeko, hartzen den erabakia gero arazo iturri ez izateko eta jendea aktibatzeke balio dezala nahi dute. Auzoaren gustuko ezaugarriei buruz, gauzak egiteko duen potentzialtasuna, Arkaute ingurunea edota Santa Luziara eta Uz-turre aldera duen hurbiltasuna apatu dituzte.

Arkaute etxeko bileraren ostean, egin dute bisita gidatua. Dagoeneko Larramendi errepidean marraztuta dauden marren azalpena eman dute udal teknikariek. Hala, marra gorriarekin, bi ertzetan borobilak dituena, lurperatzearen zuloek hartuko luketen espazioa zehaztuta dago. Arkaute parkearen parean beste lauki zuzen handi bat dago gorritz marraztuta; espazio hori, lurperatzea ez bada egiten, oinezkoen eta autoen arteko koesistentzia gunea izango litzateke. Lauki zuzen horren zabalera hartuko luke, lurperatzea eginez gero, eta gainean getaruko den plazan oinezkoentzat



Atzo goizean egindako bisita gidatuaren une bat. I.G.L.



Espaloian marraztuta daude proiektu bakoitzaren espazioak. I.G.L.

bakarrik izango litzateke. Bestalde, auzoaren lehenengo urbanizazioa zegoen aldean, hau da, Txosne okidengia dagoen espaloian, beste marra batzuk marraztu dituzte, A proiektuari eta B proiektuari dagozkienak. A proiektua lurperatzea duena da eta B proiektua lurperatzerik ez duena. Marraztutako marren koloreak esanahi berdina dute: horiak espaloia noraino iritsiko den erakusten du; grisak koesistentziako errepidea; eta gorriak autoen aparkalekuak hartuko luketen espazioa zehazten du.

Beste aldeko espaloian ez dago marrarik margotuta. Lurperatzearen proiektua egiten bada, egun etxebizitza berri zurien aurrean dagoen antzeko espazioak izango liriteke. Hau da, espaloia etxebizitzaren azpian izango litzateke, on-

↓ Ekipamenduak

Lurperatzea ez bada egiten, eraikitzaileekin adostutako 2,5 milioi euroko aurrekontua bideratzeko udalak egindako proposamena.

Kontzeptua	Kopurua (euro)
Proiektuak	200.000
Lokalaren erosketa	490.000
Lokalaren egokitzea	400.000
Arkaute birgaitzea	320.000
Arkaute handitzea	800.000
Plazako estalpea	290.000

doren koesistentziako gunea eta horren ondoren autoak aparkatzeko lekua. Lurperatzea ez bada egiten, bai koesistentziako gunea eta baita orain autoen aparkalekuak, espaloia izango liriteke.

Bisita gidatua bukatu eta gero, bi informazio banatu dituzte teknikariek. Alde batetik, B proiektua eginez gero, lurperatzea ez egiteagatik egongo liritekeen 2,5 milioi euroekin udalak egindako aurreikuspena. Teknikariek nabarmendu dutenez, proposamen irekia da, eta kontsultan proiektu hori erabakiz gero, parte hartze prozesua egingo da hori zehazteko. Bestetik, proiektu bakoitzarentzako aurreikusitako kronograma banatu dute. Besteak beste, proiektu batean zein bestean obrek iraungo duten denbora zehazten da. Arkauteko hurrengo bilerak bihar izango dira, 09:30ean, 15:00etan eta 19:00etan.

Santiago Jimenez • Villaverde del Rioko alkatea

«Udalera eramaten da batzarretan adostutakoa»

I. Garcia Landa

Euskal Herria Sozialista aldiakariak eta Engels Ateneoak antolatu duen Aste Iraultzailea ekimenaren barruan, gaur, Santiago Jimenez (Villaverde del Rio, Espainia, 1965) hitzaldia entzun ahal izango da. Jimenez Sevillako probintzian dagoen Villaverde del Rio udalerriko alkatea da. 7.500 biztanle inguru dituen udalerririk horretan politika marxista lantzen ari dira eta horren berri emango du hitzaldian. Tolosako Engels Ateneoan (Errementari kalea, 8) izango da solasaldia, 19:30ean.

Hauteskundeetara aurkezterakoan, ideologia marxista iraultzailea zenutela azaldu zenuten.

Guk ez genuen ezkatatu udal hauteskundeetara aurkeztu ginean gure programaren ideologia marxista iraultzailea. Izquierda Unidan eta Alderdi Komunistan programa hori sartzen da eta guk praktikarekin defendatzen dugu. Gure egunerako lan moduak oso hurbilekoak dira, eta herritarrek eta langileek erraz ulertzen dituztenak. 15M mugimendua, esaterako, beste politika mota bat ari da aldarrikatzen; gure ustez, gu egiten ari garen politika mota gertuago dago herritarrek eskatzen dutenetik, orokorrean egiten den politika ofiziala baino.

Zer lanketa egiten duzue?

Puntu garrantzitsua da zeini begira egiten dugu lan. Gure lana, batez ere, langileei eta gazteei begirakoa da, hau da, egun gizarte-ko bi sektore babegabeenak eta zapalduenak. Beraz, sektore horietakoak izaten diren guneetan egiten dugu lana: lantegietan, nekazaritzan, eraikuntza, eskolatan, auzoetan, kalean, ... Eta horretarako gure metodoa batzarrek egitea da. Arazoa dagoen eremukoekin egiten ditugu batzarrik: lantegiak, auzoak, ... Guretzat garrantzitsua da herritarrek konturatzea beraien arazoekin konponbidean zuzenean parte hartu dezaketeela, eta askotan erabakiorrak direla irtenbideak lortzeko. Pertsonen antolatuta askoz indar gehiago dute alderdi, sindikatu edo udal batek baino. Benetako parte hartzea izatea nahi dugu herritarrei eragiten diren arazoei irtenbidea bilatzeko eta horren alde borrokatzeko.

Eta batzarretan erabakitakoa gero osoko bilkuretan onartzen da, ezta?

Hori da. Ez da kontua erabakiak



HITZA

bulegoetan hartzen dituen udal bat izatea, herritarrengandik aparte. Justu kontrakoa da: lehenengo benetako parte hartze baterako baliabideak jartzen ditugu, eta gero, udalean, erabaki denari forma legala ematen zaio.

Herritarrek parte hartzen dute?

Batzarren bidezko parte hartzeak ere bere arauak ditu. Zergatik dugu jendea etorriko denaren ziurtasuna? Arazo bat dutelako. Hau da, urterto uholdeak izaten dituen auzo batean gai horri buruz batzar bat egiten baduzu, ziur etorriko dela jendea; edo lana banatzeko batzar bat egiten baduzu, ziur langabezia dagoena etorriko dela. Kritikatu izan dute esanez jendea bere interesen arabera mugitzen dela. Baina nola behar du ba bestela? Eta ez al da legitimoa jendea bere baldintzak hobetzeko mobilizatzea? Azkenean herritarrek pairatzen dituzten arazo zehatzei irtenbidea bilatzea da, eta hori modu parte hartzaile, garden eta demokratikoan egitea.

Lan egiteko modu horrek eragindako lorpenen adibide bat eman dezakezu?

Metodologia parte hartzaile hori ere borrokatzeko modua da. Daurkaguna kendu nahi digute eta oraindik lortzeko asko dugu. Niretzat politikak borrokatzailea izan behar du. Metodologia hau martxan jartzen ari gara eta ikusten dugu aukera bakarra dela eskubideak mantendu ahal izateko. Orain jasaten ari garen murrizketak hona iritsi dira ere. Zerbiztu bat dugu haur ezinduek artatzeko, hamar udalerriren artean. Diputazioetik eta Andaluziako Juntatik etorri ziren murrizketak, eta horren aurrean udalerririk guztietako gurasoko bildu genituen eta ikusi zuten beraiek zirela protagonistak eta egoera horri erantzuna ematea bazutela. Hiru egunetara murrizketak bertan behera utzi zituzten.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Entsegu orokorra egin zuten, pasa den larunbatean, Lask abesbatzak eta Udaberri dantza taldeak. I. URKIZU

Musikak, dantzak eta literaturak bat egingo dute, 'Alami' ikuskizunean

Lask abesbatzak eta Udaberri dantza taldeak, elkarlanean prestatu dute igande honetako emanaldia

Itzea Urkizu

Lask abesbatzako gaztetxoek musika eta Udaberri dantza taldeko ikasleen pausoak, *Alami*, *hosto baten hegaldia* ipuin musikatuan elkartuko dira, igande honetan, Leidor aretoan eskainiko duten emanaldian.

Beste hainbat talderen moduan, Udaberriko ikasleek ere, lauzpabost urte daramatzate ikasturte amaierako emanaldia eskainiz. Azken urteotan, Tolosako Eduardo Mokoroa musika eskolako ikasleen banda izan dute bidelagun; aurtan, ordea, nolabaiteko aldaketa baten bila, Lasakorain ikastolako Lask abesbatzarekin aritu dira elkarlanean.

Bi taldeek, «euska dantza eta

musika aitzakiatzat hartuta», haur eta gaztetxoekin kultura, aniztasuna eta harreman sareak lantzea helburu dituztenez, asmo bertsu horien harira sortu zen emanaldia elkarlanean prestatzeko ideia; eta horretan dihardute azken bi hilabeteotan.

Hosto baten ipuina oholztan

Igande honetan, 12:00etan hasiko da, Leidor aretoan, ikuskizuna. *Alami*, *hosto baten hegaldia*, «dantza edo kantu ikuskizun soil baina zerbait gehiago» dela nabarmendu nahi izan dute antolatzaileek: «Norberak berea egin, eta eszenatokian txandakatzear harago, benetako elkarlanaren bila joan gara, eta lortu dugula uste dugu».

Horrela, Josu Elberdin musikari pasaitarraren lana oinarri hartu dute, emanaldiaren muina izango den istorioaren haria gidatzeko. Alami hostoa izango da protagonista, eta naturako hainbat elementurekin topo egingo du bere hegaldian: itsasoa, inu-

rriak, sorginak, ... «Bere obra oso egokia iruditu zitzaigunez, gure beharren arabera luzatu egin dugu zenbait zatitan, abesbatza, dantza eta oholztako elementuak Leidorreko emanaldirako molda-

Josu Elberdin musikari pasaitarraren lana da, 'Alami, hosto baten hegaldia'

tu», diote antolatzaileek. Horrela, beraz, ipuin musikatu batez gozatzeko aukera izango dute ikus-entzuleek.

Belaunaldi berriekin lanean

Azkenaldian burutu dituzten jardueren eta lanaren ondorio, suspertu eta indarra hartu duen abesbatza da Lask: «Emanaldian ariko diren 40 gaztetxo inguruz gain, talde txikiagoak ere badira, eta hainbat proiektutan burubelarrri dabilta: argitaratu berri duten *Yau Samayaye* diskoa, Et Incarnatus orkestrarekin eta Unai

Elorriagarekin eskainitako kontzertua nahiz elkartrukeak», diote antolatzaileek.

Bide beretik, Udaberriko dantza ikastaroetan ere, 4 eta 14 urte bitarteko 110 haur eta gaztetxo elkartzen dira, ostiralero. «Horrek, urtean zehar hainbat jardueretan parte hartzeko bide ematen die; besteak beste, Tolosan ospatzen ditugun bi dantzari txikietan, eskualdeko nahiz Euskal Herriko beste herrietan egiten direnetan, hemendik kanpoko taldeekin prestatutako ekitaldietan, edo hizpide dugun Leidorreko emanaldia bezalakoetan», diote dantza taldeko kideek.

Sarrerak leihatilan salgai izango dira, ohiko ordutegietan; helduak 4 euro ordaindu beharko dute, eta gaztetxoek, berriz, 2 euro. Lask abesbatzako kideek nahiz Udaberrikoek, zahar, heldu, gazte eta haurrak gonbidatu nahi izan dituzte emanaldira: «Ikuskizun desberdin, polit eta samurraz gozatzeko aukera izango da».

Irudia berritu du Udaberri dantza taldeak

➔ Taldeak bere ibilbidea hasi zuenez geroztik 55 urte pasa dira, eta egungo kideek, irudia berritzeko erabakia hartu zuten urte hasieran.

Helburua lortzeko bidean, logotipo lehiaketa antolatu zuten, eta deialdia zabaldu ondoren, Ibai Lazkano eibartarra suertatu da irabazlea. Horrela azaldu du egileak irudia: «Udaberri Tolosako taldea dela adierazteaz gain, Udaberri izenari ere alipamen txikia egiten dio, izan ere, lore baten itxura du baldosak; alaitasuna eta gaztetasuna transmititzen ere laguntzen du. Bestalde, goitik begiratutako dantzari batzuk direla irudituko zaio zenbaiti».



Bertako informazioari, bertako produktuak

Ekain sagardoa

6 botilako kaxa bana

Egin HITZaren harpidedun apirilaren 3tik ekainaren 1era, eta jaso

Ekain sagardoa
6 botilako kaxa bana



Harpidedun egiten diren guztien artean

Lekaitioko Metrokua hotelean, bi pertsonarentzako asteburu baterako egonaldia ZOZKATUKO DUGU

Harremanetarako: 902-82 02 01 • harpidetza@hitza.info

Irudia > Ibarra



MERKATARI EGUNA IBARRAN ETA VILLABONAN

Tolosaldea Garatzenek eta eskualdeko beste zenbait eragilek, hainbat jarduera antolatu zituzten pasa den asteburuan. Museoen gau zuria nahiz kultur aniztasunaren jaia Tolosan izan ziren; Villabonan eta Ibarra, or-

dea, merkataria eguna ospatu zuten. Irudietan ikus daitezkeen moduan, Ibarra egun berezia izan zen merkatarientzat. Suziria jaurtiz hasi zituzten jarduerak, eta askok erakuslehoak bereziki apaindu zituzten, merkata-

rien eguna zela eta. Era berean, dendariak kalea atera zituzten beren produktu eta postuak, eta musika ere izan zen: dultzaineroak eta musikari senegaldarrak aritu ziren. HITZA

Hondakinen kudeaketarako lantaldea azken fasean da jada

Gaur, 19:00etan, hondakinen inguruko datu ekonomikoak izango dituzte hizpide, Tolosako batzar aretoan

I. Urkkizu Tolosa

Tolosako Udalak antolatutako hondakinen kudeaketarako lantaldea, azken fasera iristen ari da. Gaur, 19:00etan, hondakinen inguruko datu ekonomikoak izango dira, udaletxe batzar aretoan.

Lantaldea hiru talde txikiagotan bildu da jada, eta bi saio beste-rik ez dira geratzen lehen fasea amaitzeko. Azken saioa, pasa den maiatzaren 9an izan zen, eta Gipuzkoan gaur egun erabiltzen diren hondakin bilketa sistemak aztertutako zituzten, era sakonean.

Batetik, Zarauzko Udaleko ingurumen teknikaria izan zen Tolosan, Begoña Rodriguez; bosgarren edukiontzien inguruan

aritu zen saioan: besteak beste, Zarautzen lortu dituzten emaitzak, eta bosgarren edukiontzien bilketa sistemak, bere ustez dituen abantailak eta desabantailak izan zituen hizpide. Beste hainbat konturen artean, bosgarren edukiontzia erabiltzen duten herritarrei, zabor tasan hobaria aplikatzen zaiela azaldu zuen Rodriguezek. Baina, era berean, edukiontzia erabiltzeko izena emana duten herritar guztiek, egiaz edukiontzia erabiltzen duten edo ez duten jakiteko arazoak dituztela nabarmendu zuen Zarauzko teknikariak.

Bigarren hizlaria, Enrique Enparantza izan zen. Sasietako Mankomunitateko teknikaria da bera, eta bosgarren edukiontzien inguruko datu gehiago eman zituen saioan; izan ere, Goierriko herri askotan sistema hau dabilte gaur egun. Hala ere, Enparantzak Itsasondoko sistemari eskaini zion bere hitzaldiko tarterik zabalena. Bertan, sortutako hon-

dakinen zati bakarra jasotzen da era pertsonalizatuan: errefusa. Gainerakoa, edukiontzien bidez biltzen dute. Lortu dituzten emaitzak «oso onak» direla nabarmendu zuen, baina Tolosa bezalako herri handi batean, berau aurrera eramateko zailtasunak ikusten ditu Enparantzak.

Azkenik, Hernaniko Udaleko ingurumen teknikaria, Olatz Urrutibeaskoa, atez ateko sistemaz aritu zen. Besteak beste, atez atekoa Hernaniko auzoetara nola egokitzen azaldu zuen; esaterako, Alde Zaharra monumentu kulturala izanik, zintzilarioak kalean ezin izan zituzten jarri, eta leku itxietan jarri behar izan zituzten.

Gaurko saioan, Tolosako Udaleko hartzailezako teknikari bat, Foru Aldundiko Ogasun zuzendaria den, eta Usurbilgo kontu-hartzailea izandako Xabier Olano eta Gemma Ezeiza, mankomunitateko teknikaria, izango dira.

Haize boskotea eta pianoa, Boreas-ekin gaur

Ekhiñe Olano tolosarrak tronpa jotzen du seikotean; 19:30ean izango da emanaldia, musika eskolan

I. Urkkizu Tolosa

Tolosako musika eskolak antolatzen duen Musikaria astearren barruan, Boreas seikotea ariko da, gaur, 19:30etik aurrera, musika eskolan bertan.

Goi mailako musika ikasketak egindakoak dira Boreas taldeko kide guztiak. Ekhiñe Olano tolosarra, taldeko tronpa jotzailea da. Eduardo Mokoroa musika eskolan egin zituen ikasketak, eta Musikaren eskuratu zuen tronpa titulua. Behin tronpa ikasketak bukatuta, Alemaniako Musik-hochschule Freiburg musika eskolan eta Amsterdameko (Hollandan) kontserbatorioan aritu zen, bere ezagutzak hobetzen.

Goiztik, Euskadiko Gazte Orkestran, Joven Orquesta de Castilla eta Joven Orquesta de Cataluña aritutakoa da. Camerata Academia Freiburg-en, Concertgebouw Amsterdam-en nahiz Bilboko eta Gasteizko udal musika bandetan zenbait kolaborazio ere egin izan ditu. Gaur egun, Gasteizko musika eskolan aritzen da Olano tolosarra, irakasle lanetan.

Tronpaz gain, Amaia Gomez flautarekin, Iker Nausia oboearekin, Jasone Razkin klarinetearekin, Ameztzi Gojenola fagotarekin eta Borja Rubiños pianoan ariko dira.

Bi emanaldi gehiago

Boreas taldearen kontzertuaz gain, beste bi emanaldik biribilduko dute aurtengo Musikaria.

Bihar, Sanna bikotea ariko da, 19:00etan, musika eskolan *Piazzolla project* emanaldiarekin. Azkenik, etzi, Tolosako Musika Bandak Nafarroaren Eguneko kalejiran parte hartuko du.



TOLOSAKO
INMAKULADA
IKASTETXEA

HEZIKETA ZIKLOAK

Goi maila

- Gizarte Integrazioa
- Haur Hezkuntza
- Osasun Dokumentazioa
- Diagnosi Irudia
- Erradioterapia

AURREMATRIKULAK
Maiatzaren 28tik
ekainaren 8ra

Erdi maila

- Erizaintza laguntzailea
- Farmazia teknikaria

**FORMAZIO BERRITZAILEA
ETA KALITATEZKOA**

Harri Jaia, Bedaion

Bihar Harri Jaia ospatuko dute; asteburuan berriz, besteak beste, ogia egiten ikasiko dute

Eneritz Maiz Bedaio

Harri Jaia ospatuko dute bihar bedaiotar guztiek. Ohitura zaharrek ez dituzte galtzen utzi nahi, eta hori dela eta, egun osoko festa izango dute. 11:00etan meza izango da, eta ondoren hamaiketako egingo dute, Abaetxe jatetxean. Zeberio eta Mañukorta bertsolariez gain, trikitalariak ere izango dira. Bazkaria eta afaria ere egingo dituzte. Harri Jaiaren ostean, kultura asteburua izango dute.

Ogia egiten ikasteko ikastaro praktikoa antolatu dute, larunbaterako. 09:30etik 13:30era izango da, Artubi Elkartearen. Hamar pertsonako taldea osatuko dute. Eskarmentu handiko irakasleak izango dira, eta partaide bakoitza bere ogiarekin ateratzea espero da. Interesatuak Artubi elkartearen edo Abaetxe jatetxean izena ahalik eta azkarren ematea nahi dute antolatzaileek. Bigarren talde bat osatuko balitz, beste egun batean errepikatzen aukera izango dela nabarmendu dute.

Bestalde, 17:00etan, ume eta gaztetxoentzako ipuin kontalaria izango da. Maite Frankok ordubete inguruko saioa burutuko du, Artubi elkartearen. 19:00etan, Abaetxan, irakurketa saio bat izango da. Bertan, Ibon Otaegi *Goiko* eta Kandido Uranga esatariek, Jo-



Aurten ere txikienentzako ipuin kontalaria izango da. HITZA

mes eta Mirari Irurzun musikariek batera, Bernardo Atxaga idazlearen *Lezio berri bat ostrukari buruz* eskainiko dute. Ordubete inguru iraungo duen saio hau adin guztietako ikus entzuleei zuzendua dago.

Maiatzaren 27an, igandean, Karrikatik Eskoletxera doan bide

zahar-berrituaren inaugurazio ekitaldia egingo da. 11:00etan Artubi elkartearen parean elkartuko dira, eta guztiak batera oinez jaitziko dira Eskoletxera. Ondoren, berriz, herrira igoko dira. Abaetxan bukatuko dute ibilaldia.

• alegaldea@hitza.info

↓ Egitaraua

MAIATZAK 24, OSTEGUNA

HARRI JAIA

■ **11:00.** Meza. Ondoren, hamaiketako Abaetxe jatetxean, Zeberio eta Mañukorta bertsolariek, eta soinu-joleekin.

■ **Bazkaria.** Abaetxe jatetxean.

■ **Afaria.** Artubi elkartearen.

MAIATZAK 26, LARUNBATA

■ **09:30-13:30.** Ogia egiten ikasteko ikastaro praktikoa egingo dute.

■ **17:00.** Ume eta gaztetxoentzako

tzako Maite Franco ipuin kontalaria izango da, Artubin.

■ **19:00.** *Lezio berri bat ostrukari buruz* irakurketa saioa izango da, Abaetxan. Goiko eta Kandido Uranga esatariek, Jomes eta Mirari Irurzun musikariek. Ordubete saioa egingo dute.

MAIATZAK 27, IGANDEA

■ **11:00.** Karrikatik eskoletxera doan bidearen zahar berritzearen inaugurazioa egingo dute. Artubitik abiatuta egingo dute ibilbidea, Abaetxan bukatzeko.

→ Laburrak

Elkartasun zozketako zerbaki sariduna 019 da

ZIZURKIL ▶ Zizurkilgo Herrira mugimenduak elkartasun zozketa egin du. Zozketa, hilaren 19an, Plazara egunean egin zuten, eta zerbaki sariduna 019 izan da. Zerbaki hori duen txartelaren jabeak hilabeteko epea du saria jasotzeko. Zizurkilgo Iriarte jatetxera joan behar da saria jasotzera. Gurutze puntuan egindako esku lana da, marko batean sartuta.

Udalak Lauburu Kirol Elkartearen zoriandu du

IBARRA ▶ Ibarako Udalak Lauburu Kirol elkartearen zoriandu du, Hirugarren mailako txapelketa irabazi dutelako: «Ibartarrez osatutako gazteekin, txapelketa paregabea burutu dute». Bestetik bere filiala den Tolargi ere zoriandu du hauek ere beren mailako txapelketa irabazi baitute.

Eriz magoa izango da etzi, kultur etxean

ALEGIA ▶ Alegiako eskolako Iturizahar guraso elkarteak gazte-txoei zuzendutako emanaldia antolatu ohi du urtero udaberrian. Bada, aurten, Eriz magoaren ikuskizunaz gozatu ahalgo dute herriko txikiak. Etzi, ostira-lean, izango da emanaldia, kultur etxean, 17:00etan hasita.

Donostia eta Orio arteko ibilbidea, Mendibilekin

LEITZA ▶ Mendibil mendi taldeak mendi irteera antolatu du larunbaterako, hilaren 26erako. Hain zuzen ere, Donostiatic Oriora bitarteko bidea egingo dute, kostaldetik. Ondarretatik abiatuko dira, eta GR 121 biderei jarraituz osatuko dute irteera. Leitzatik joan-etorria autobusez egingo dute. Mendi taldekoek galtza luzeekin joatea gomendatzen dute, «hainbat tokitan bidea estutzen delakogiteko, eta adar, edota belar luzeetatik babesteko». Animatzen direnek bihar dute izena emateko azken eguna.

Irudia ◊ Alegia



MARGOLANAK IKUSGAI

Alegiako Jubilatuen tabernak, hilero egiten duen moduan, tabernako paretetan margolanak dituzte ikusgai. Kasu honetan, Naiara Delgado jarri ditu ikusgai. Hilabete amaiera bitartean egongo dira bertan, eta erosteko aukera ere eskaintzen du artistak. E. MAIZ

Aralar Intxurreko nesken taldeak finala jokatuko du, larunbatean

Gipuzkoako Kopako finala jokatuko dute Urnieta taldearen aurka; Andoainean izango da, 11:00etan

E. Maiz Alegia

Alegiako Aralar Intxurre nesken futbol taldeak Gipuzkoako Kopako finala jokatuko du, futbol 8an. Urnieta taldea izango dute aurkari, eta partida Andoainean jokatuko dute, larunbatean, 11:00etatik aurrera.

Infantilen mailan, Intxurreko mutilek finalerdia jokatuko dute, Idiazabal. Bertako taldearen aurka izango dute partida. Igandean, hilaren 27an, 11:00etan hasitako da.



Aralar Intxurre taldeko neskek finalera iristi dira. PATXI RENOBALES

Denboraldi amaierako festa

Azken urteetako ohiturari jarraituz, Intxurre Futbol taldeak antolatuta denboraldi amaierako festa egingo dute. Larunbatean,

21:00etatik aurrera zahagi ardoa izango da herriko plazan. Herri-txuei guztiak gonbidatuta daude.

Sari banaketa eta kamisetak ere banatuko dituzte.



HITZAK harpidedunentzat **bi sarrera pare** ditu



Alurren ikuskizun berria

Maiatzak 25 • Ostirala • 20:30ean • Tolosako Leidorren

txikiok hitza

Zozketan parte hartzeko osteguneko 14:30ak baino lehen deitu **943 65 56 95** telefono zenbakira.

Zuzeneko salmenta bultzatu asmoz, Lur Lan baserriarren elkarteak Saskika zerbitzua du. Astero fruitu eta barazki saski bat jasotzeko aukera ematen du, bertako eta garaian garaiko baserriko produktuekin.

Baserritik etxera, zuzenean

Imanol Garcia Landa

Lur Lan baserriarren elkarteak Saskika egitasmoa jarri du martxan. Izenak dioen moduan, astero garaian garaiko eta bertako produktoreek landutako elikagaiekin saskiak banatzen dituzte etxeetara. www.saskika.com helbidean jaso daiteke zerbitzuari buruzko informazioa eta bertan, bestak beste, ikusi daiteke aste horretan izango den produktuen zerrenda. Telefonoz ere egin daiteke eta Lur Lanen dendetan ere egin daiteke eskaria. Barazki eta fruitu saskia 15 eurotan saltzen dute. Horretaz gain, hainbat landutako produktu eskaintzen dituzte: txokolatea, gaztak, jogurtak, eztiak, ardi esnea...

Lur Lan elkarteak Tolosan duen Bistrot dendako arduraduna da Irantzu Gallego. Dendak Saskika egitasmoan parte hartzen du, eta bertan jaso daiteke produktuen saskia, garraio kosturik ordaindu gabe. «Ostegunetik aurrera jaso daiteke saskia», dio Gallegok. «Batzuk ostiralean ere jasotzen dute, baina komeni da ahal den azkarrena jasotzea». Dendak ordutegi zabala duenez, «etxetik kanpo denbora luzez egoten denarentzat erosoa izan daiteke produktuak jasotzeko», azaldu du.

Saskika zerbitzua pixkana finkatzen doala dio Gallegok. «Jendeak probatzen du, eta ikusten du ondo dagoela eta bere beharrak betetzen dituela. Bezeroak ere gustura hartzen dute zerbitzua, besteak beste, ez delako derrigorrezkoa astero saskia erostea». Kontsumitzaileek «kalitatezko produktuak eta askotarikoak» jasotzen dituztela dio dendako arduradunak, eta horrelako eskaintza baloratzen dela gaineratu du.

Zerbitzua erabiltzen duen bezeroaren perfila anitza dela esan du Gallegok. «Batez ere, internet erabiltzen dutenak izaten dira», dio. «Nahiz eta dendan jaso saskia, lehenengo kontaktua internet birtartez izan ohi da». Hasieran Lur Lanetik pentsatzen zuten perfil jakin bat izango zela, baina tartean adineko emakume batzuk ere saskia eskatzen dutela nabarmendu du Gallegok. «Ohikoena, bezeroak etxetik kanpo lana egiten duten adin ertaineko bikoteak izatea da».

Dendan jasotzearen abantaila
Saskika erabiltzen dutenek bertako eta garaian garaiko produktuen bila doazela dio Gallegok. Bera ere Saskikako bezeroa dela



Olatz Ilarregi, Izaskun Gallegoren eskutik saskia jasotzen Lur Lanen Bistrot dendan. I.G.L.



Xanti Sorron eta Manoli Urdangarin, beren negutegian letxugak biltzen. A. IMAZ

dio: «Etxetik kanpo lan asko izaten dut eta eskertzen duzu horrelako zerbitzua izatea».

Olatz Ilarregik Bistrot dendan jasotzen du astero bere saskia. «Bertako eta garaian garaiko produktuak erosteko asmoa nuen», azaldu du Ilarregik. «Begaritzen aritu nintzen eta hori lortzeko

modu erraz bat Saskika zerbitzua dela ikusi nuen».

Ilarregik zerbitzuaren erosotasuna nabarmendu du: «Batetik, nahi dudanean internet bidez egiten dut eskaera; bestetik, ez dit eskatzen maiztasun jakin bat, aste batean hartu dezaket eta beste batean ez, esaterako; horrez gain,

oso orekatua izaten da eskaintza, produktore asko daudelako, eta fruitu eta barazkien saskiaz gain produktu landuak ere eskatu ohi ditut».

Andoaindarra da Ilarregi eta Tolosan lana egiten du. Erosotasuna dela medio, eta garraio kostuak ere aurrezteko, Bistrot den-

dan jasotzen du saskia ostegunero.

Hernialdeko Saraon baserriko Xanti Sorron eta Manoli Urdangarinak Saskika zerbitzuan parte hartzen duten baserriarrak dira. Produktzio integratua egiten dute, garaian garaikoa, eta barazki jakin batzuk egiten dituzte, tartean tipulinak eta letxugak. Produktu horietatik eskaera egiten diote Saskikatik eta hori banatzen dute.

Batez ere, supermerkatuei saltzen diete bere ekoizpena. Zuzeneko salmenta zabalagoa izatea nahiko lukete, baina horretarako kontsumitzeko moduak aldatu egin behar direla diote. Hain justu, garai garaikoa erostea garrantzitsua dela uste dute Saraon baserrikoek: «Jendeak pentsatzen du produktu guztiak edozein garaitan egon daitezkeela, eta hementxo baserrietan ez da horrela izaten». Azken urteotan aldatuta handia izan dela diote, eta zuzeneko salmenta asko galdu egin dela. «Dudarik gabe produktio guztia zuzenean saltzea hobeto izango litzateke, baina garaiak asko aldatu dira», diote. Saskika bezalako egitasmoek zuzeneko salmentari bide bat irekitzen lagundu dezaketela diote.

Hezkuntzako murrizketen aurka protesta ari dira egiten Leitzaldean

Ikastetxeek sindikatuek eginiko deialdiarekin bat egin dute; datorren asterako beste bi deialdi egin dituzte

Iñigo Terradillos

Nafarroako Gobernuak hezkuntza publikoan ezarri asmo dituen murrizketen aurka egiteko, hezkuntzako sindikatuen gehiengoak hiru greba egun deitu ditu. Atzo izan zen lehena, eta Nafarroa osoan bezala, Leitzaldean ere eragin zuzena izan zuen deialdiak, bertako ikastetxe guztietan egin baitzuten protesta. Hurrengo greba deialdiak hilaren 29rako eta 31rako egin dituzte.

Amazabal institutuan, esaterako, gutxieneko zerbitzua eskaini zuten. Beraz, legeak ezarritako langile kopurua joan zen zentrorra, eta ikaslerik ez zen azaldu. Peio Zestau institutuko zuzendariak adierazi duenez, «dirua aurrezketatik sortu da egoera hau». Izan ere, lehendik Nafarroako gobernuak eginak zituen murrizketei beste hainbat batu zaizkie orain, eta ondorioz, irakasle kopurua jaistea espero dute. Bigarren Hezkuntzaren kasuan, irakasleek 18 saio edo eskola ematen zituzten orain arte, eta 20 saiora igoko litzateke gobernuak ezarritako murrizketen arabera. Era berean, geletako ratioa igoko litzateke. Gehienez, 30 ikasle hartzen zituen orain arte gela bakoitzak, eta aurrerantzean 32 hartuko litzuzke.

Amazabal institutuko zuzendariak azaldutakoaren arabera, «neurri horien ondorioz, irakasle bakoitzak ordu gehiago lan egingo duenez eta geletan ikasle gehiago sartuko direnez, gutxienez lau irakasle soberan egongo lirarteke institutuan datorren ikasturtean».

Egoera honen aurrean, Peio



60 lagun inguru elkartu ziren atzoko elkarretaratzean, murrizketen aurka protesta egiteko. HITZA

Zestauren ustetan, «ezin gara ezer egin gabe geratu». «Gutxienez, orain arteko egoeran gertatzea eskatzen dugu, ez baita bidezkoa murrizketak hezkuntzan eta osasunean egitea, eta are gutxiago beste batzuek eragin dutena ordaintzeko». Institutuko zuzendariaren arabera, «murrizketekin ez da ezer konpontzen, eta gainera, irakasleek, familieek, eta herritar xume guztiek ordaintzen dute».

HH-n eta LH-n

Erleta eskolan ere bat egin dute protestekin, baina ezin izan zuten erabat bete, atzo. Izan ere, bertatik adierazi dutenez, «kasualitatez, eskolako zortzi talde kanpalekuan daude une honetan, beraz, ezinezkoa izan da greba egitea». Dena den, murrizketen gaineko desadostasuna adierazteko elkarretaratzea egin zuten atzo eguerdian, ikastetxearen kanpoaldean. Ikastetxeko arduradunek gurasoak ere deitu zituzten protesta ekitaldian parte hartzera, eta guztira, 60 lagun inguru bildu ziren.

Gaur jolas-orduan bilduko dira, eta orduan erabakiko dute aurrerantzean noiz bilduko diren egunero eskolaren aurrean. Gre-

↓ Datuak

MURRIZKETAK

■ **Saioak.** Irakasleei saioak edo eskolak gehitzen zaizkie. Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntzako irakasleek bi saio gehiago izango litzuzkete.

■ **Ratioa.** Haur Hezkuntzan, 3 urtekoen gelan 25 haur izango dira gehienez, 4 urtekoen gelan 25etik 26ra igotzen da kopurua, eta 5 urtekoen eta Lehen Hezkuntzako en geletan, 25etik 27ra igotzen da. Bigarren Hezkuntzan 30etik 32ra igo dute kopurua.

ba deialdiei dagokionez, atzo egiterik izan ez zuten arren, datozen bi deialdietan, hau da, hilaren 29an eta 31n bat egiteko asmoa dutela azaldu dute Erletatik.

Haur Hezkuntzaren eta Lehen Hezkuntzaren kasuan, Bigarren Hezkuntzan gertatu moduan, bi saio gehiago izango litzuzkete irakasleek, hau da, 23tik 25era igoko litzuzkete. Bestalde, ratioari dagokionez, 3 urtera arteko geletan 25 haur sartuko dira gehienera, orain arte bezala, beraz, 4 urteko-

en kasuan, 26ra igoko litzuzkete, eta Lehen Hezkuntzako en kasuan, 27ra arte.

Bada, azken neurri horiez gain, beste bi ere onartuak ditu Nafarroako Gobernuak hezkuntza publikorako. Batetik, gobernuak funtzionamendurako eta mantenturako ikastetxe publikoetarako bideratzen duen diru kopurua %15 murriztu du. Bestetik, irakasleen bajak lehendabiziko egunean ordezkatu ordez, 10 eskola egun igaro ostean ordezkatzeko dira, gaur egun.

Beste bi greba deialdi

Hezkuntzan Nafarroako Gobernuak ezarri asmo dituen murrizketak bertan behera uztea dute helburu burutzen ari diren protesta ekitaldiek. Bada, sindikatuen gehiengoak beste bi greba egun deituak ditu datorren asterako, hilaren 29 eta 31rako, eta hortik aurrera greba mugagabea egiteko prest azaldu dira. Izan ere, sindikatuen arabera, «irakasleen lan baldintzak eta irakaskuntzaren kalitatea daude jokoan». Nafarroako Gobernuak, bere aldeetik, murrizketei eutsiko diela berretsi du. Hori bai, murrizketak «malgutasunez» ezarriko dituela adierazi du.

→ Laburrak

Hondakinen inguruko batzar informatiboa

IBARRA ▶ Ibarrako Udala hondakinen inguruan egiten ari den informazio kanpainaren barruan, batzar informatiboa izango da gaur, udaletxeko pleno aretoan. 19:00etan izango da, eta gaztelaniaz egingo dute.

Bertsotz bazkaria, Muñoa eta Gorostidirekin

BERROBI ▶ Begi Gorri gaztetxeak antolatuta, bertso bazkaria egingo dute larunbat honetan, hilaren 26an. Sagardotegi menuaz gozatu ahalgo da, eta bertsotan Unai Muñoa eta Bixente Gorostidi ariko dira. Bazkarirako txartelak 30 euroan daude salgai, Berrobiko dendan eta Iriarte erretegian. 23:00etatik aurrera, Gabezin taldearen kontzertua izango da.

Musika lantaldearen bilera, bihar, kultur etxean

IBARRA ▶ San Bartolome jaiak antolatzeko festa batzordea hasia da bilera egiten. Hain zuzen ere, taldetan banatuta ari dira eginkizunak banatzen. Bada, bihar, musika lantaldearen bilera egingo dute, musika taldeak lantzen hasteko asmoz. 19:00etan hasiko da bilera, eta kultur etxean egingo dute. Parte hartu nahi duten herritar guztiei irekia da bilera.

Errausetari buruzko ikus-entzunezkoa, bihar

IBARRA ▶ Ibarrako Zero Zabor taldeak antolatuta, *Errausetari atek ixten* dokumentala izango da bihar ikusgai, 19:00etan, kultur etxean. Lan hau Debagoienako Zero Zabor taldeak egin du. Biharko proiektioa euskaraz izango da, eta Zero Zabor taldetik esan duteenez, aurrerago gaztelaniaz ere emango dituzte.

◉ Hilberriak eta urteurrenak

ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info



XABIER GARMENDIA ARANDIA

jauna

- Goian bego -

Alegiako tabernariak

Alegian, 2012ko maiatzaren 23an



XABI GARMENDIA ARANDIA

*Bihar, zer dator bada bihar?
amets ezinezko, amets goiztiar.
Egun, egun bizi gaitea
goza dezagun gaur ta agur bihar.*

Rubio eta Aloña

Tolosa, 2012ko maiatzaren 23an



19°
13°

GOIZA	LAINTUTA
ARRATSALDEA	LAINTUTA
BEROENA	23°
HOTZENA	14°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitateak: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta/Leitza: 687 410 022. anoetaldea@hitza.info
Ibarraldeak: 687 410 118. ibarraldeak@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leitza/Leitza: 687 410 118. leitzaaldea@hitza.info

Tolosa Herria Hedabideak S.M.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:

Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezketza, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernialdea, Irura, Larraul, Leitza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Irudia Villabona-Zizurkil



IKASITAKO EGITEKO GARAIA

Villabonako eta Zizurkilgo Jesusen Bihotza ikastolako eta Fleming ikastetxeko ikasleek hainbat jarduerara izan dituzte eskolotan ikasitakoa gehiago lantzeko. Ikastolako HH3, 4, eta 5 urteko haurrek English Festival egin zuten Gurean (lehen irudia), eta LH1 eta 2 mailako ikasleek igeriketa lantzen ari dira (bigarren argazkia). Ikastetxean, berriz, 2. mailako ikasleak intsektuak ikertzen aritu direnez, Zuloaga Txikiko Natur Eskolan izan ziren (hirugarren irudia) erleei buruz ikasten. HITZA

Agenda

DEIALDIAK

- **Ibarra.** Udalak atez ateko hondakin bilketaren inguruko informazio batzarrak antolatatu ditu. Gaztelaniazko saioa gaur, hilak 23, izango da, 19:00etatik aurrera, udaletxeko batzar aretoan.
- **Berrobi.** Kultur astean gaur, 17:00etan, sukaldaritza erakustaldia Felix Belauzararen eskutik, Bide Ona elkartearen (hau-

rrak zaintzeko zerbitzua egongo dela jakinarazi dute antolatzaileek); eta 19:00etan, *Euskal Herriko independentzia ekonomikoa* hitzaldia eskainiko du Oskar Arantzabalek, Etxolan.

- **Irura.** Kultur astean barruan gaur, 18:00etan, plazako ikastolan, Kantujirako entsegua; eta 19:00etan, San Migel plazan, Loatzo musika eskolako bandaren emanaldia.

Agurrak



Urte askoan!
Maialen Zubeldia Azkolain (Ibarra). Gaur 5 urte. Tere birramonaren partetik.



Ongi etorri Aitzol!
Zorionak Oihana eta Minde.

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. Telefonoa: 943 65 46 10.
- **Leitza.** Campos, M. Z. Elbarren, 52. Telefonoa: 112.

HITZAk ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



harpidedun izateak badu saria zozketa

1 Arregi Jatetxea Bi lagunentzako bazkaria edo afaria

Herriko plaza, 7 • Berastegi
Tel.: 943-68 30 59

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **51**



2 Fronton Jatetxea Bi lagunentzako bazkaria edo afaria

San Frantzisko ibiltokia, 4 • Tolosa • Tel.: 943-65 29 41

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **52**



3 Euskal Eskola Publikoaren XXI. jaia Bi elastiko

www.ehige.org/jaia2012/

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **53**



4 EUREKA! zientzia museoa Bi lagunentzako bina sarrera

Mikeletegi, 43-45
Donostia
Tel.: 943-01 24 78

www.eurekamuseoa.es

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **54**



Parte hartzeko deitu edo idatzi: **902-82 02 40 / txokoa@hitza.info** [harpidedunen kidea, izena, herria, eta zeineskaintzetan parte hartu nahi duzun garbi adierariz] Aste honetako astearte, asteazken eta ostegun goizean, nahi duzun orduan. Saridunak ostiralean argitaratuko ditugu.